



MUSIKA

Beethoven gazteen eskutik

Hainbat lekutan eskaini ditu EGOk Beethovenen obrak. Argazkian Donostiako Kursaalaren emandako kontzertua ikus dezakegu. Lehen lerroan daude Jone Martinez sopranoa, Ruben Gimeno zuzendaria eta Eneko Sagardoy narratzailea.



EGO FUNDAZIOA

BEETHOVENEN OBRAK

EUSKAL HERRIKO
GAZTE ORKESTRA

ZUZENDARIA:
RUBEN GIMENO

BAKARLARIA:
JONE MARTINEZ (SOPRANOA)

NARRATZAILEA:
ENEKO SAGARDROY

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIAN,
URTARRILAREN 3AN

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Beethoven-en musika zoragarriak (konpositorearen jaiotzaren 250. urteurrenean) eta Euskal Herriko Gazte Orkestraren (EGO) freskotasun eta bizitasunak ezinbesteko hitzordu bihurtu zuten aurtengo neguko topaketa.

Egia esan, Beethovenen urteurren hau apur bat nahasita geratu zen 2020an, denok ezagutzen ditugun zirkunstantzien ondorioz. Baina EGOn saio honek konpentsatu gintuen, nolabait. Programa oso egokia izan zen, ohikoak ez diren lanak jo baitzituzten. Bestalde, Jone Martinez soprano gazteak erreperitorio honetarako gaitasun bikainak erakutsi zituen, eta horrez gain, Eneko Sagardoy aktoreak narratzaile gisa egindako lana azpimarratu behar da.

Interpretatu zuten lehen lana, *Ah perfido!*, sopranoarentzako eta or-

kestrarentzako kontzertuko aria da, Beethovenek idatzia 26 urte besterik ez zituenean. Abeslariarentzat zailtasunez beteriko pieza da, eta protagonistaren maitalearen traizioa eta abandonua kontaktzen ditu. Jone Martinezek ahots dohainak eta hainbat erregistrotatik pasatzeko erraztasuna erakustez gain, adierazkor eta ñabarduraz bete agertu zen. Orkestra, berriz, fin ibili zen une oro, bakarlariari adi eta fraseatze malgua eginez.

Une epikoa *Egmont, op. 84* obrarekin iritsi zen. Goethek idatzitako izen bereko tragedia irudikatzen konposatutako musika intzidentaleko hamar piezako multzoa da, non *Egmont* heroi flamenkoaren bizitza eta bereziki Alabko hirugarren dukearekin izan zuen borroka kontaktzen den, atxilotu, heriotza zigorra ezarri eta burua moztu zioten

arte. Independentziaren alde eta bere herrialdearentzat monarkia espainiarrrak suposatzen zuen zapalkuntzaren aurka borrokatzeko ideala aldarrikatzen du protagonistak.

Musika deskribatzailea da, eta interpretazio-grina ezinbestekoa da publikoarengana iristeko. Bai orkestra, ñabarduraz bete, bai Jone Martinez, lehen obran bezain saiatu, Beethovenen lanaren mailan egon ziren. Eneko Sagardoy narratzaileak ikusleei emozioak transmititzeko behar den indarra eta jenioa erakutsi zituen.

Kontzertu eder hau, egun hauetan normala den bezala, Eguberrietako bis dibertigarri batekin amaitu zen, bertaratutako guztiak liluratu zituen. Zorionak, benetan, EGOk kideei eta Ruben Gimeno zuzendariari egindako lanagatik. ●